

KEO... MUNDUAREN ITXAROPENA ERAMANGO DUEN SATELITEA
UNESCOk «XXI. mendeko proiektua» izendatua

OHIZ KANPOKO TRESNA PEDAGOGIKOA

Zein da KEOren helburua? KEO proiektua sortzeko asmoaren oinarrian giza talde guztien erradiografia egitea dago; horretarako, kultura guztietako gaur egungo gizaki “ahul, boteretsu, aberats nahiz baztertu”en pentsamenduak bilduko dira. Erradiografia horri esker, aurrerantzean elkarrekin eraiki nahi dugun munduari buruzko nazioarteko eztabaida abiarazi ahal izango dugu.

Noiz irtengo da? 2013/14 an KEO satelitea espaziora bidaliko dute, eta Lurraren inguruan bidaia luzea egin eta gero, milaka urte batzuen buruan, berriro osorik lurreratuko da. **Orduan, gure ondorengo urrunek, guztiok zuzen diezazkiekegun mezuak eta testigantza hartuko dute** oinordetzan.

Nola parte hartu? Duela hilabete batzuek geroztik, **Lurreko biztanle guztiok eta bakoitza**, gonbidaturik gaude, doan eta giza espeziearen ordezkari gisa, **“hitza hartzera”**. Izan ere, guztiok ditugu zentsurarik gabeko lau askatasun-orri, gure mezuak idatz ditzagun; KEO satelitearen barruan gorderik **gure testigantza eta gure asmoak eta nahiak adieraziko dizkiete geure ondorengo urrunei.**

Zer du interesgarri epe luzera? Gaur egungo gizakien lekukotasuna hemendik milaka urte batzuetako **gure ondorengoei eskaintzea, XXI. mendeko gizateriaren Historiako orri faltatu ezin** baten moduan eta opari arkeologiko gisa.

Zertarako balio du epe laburrean?

- **Bakoitzari** askatasun- eta hausnarketa-espazio bat eskaintzeko, bere bat izatearen berri eman dezan.
- KEO satelitea espaziora jaurti eta behin, eta lengoaiaren tratamendurako teknikarik sofistikatuenei esker, **gure mezu guztien eduki-mapak egiteko**; Lurrean gordetako kopian era anonimoan bilduko diren mezu berberenak, alegia.
- **Emaitzak** hedabideei, GKEei eta gobernuei jakitera eman eta **mundu-mailako debate unibertsala zabaltzeko**, hortik aurrera gure artean mundu harmoniatsuago bat eraikitzen hasteko.

Zer aitorten du nazioartean? KEOk **babes bikaina du mundu osoan hedatzeko** aukerei dagokienez, GENF (Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioa), UNESCO, Frantziako enbaxada-sarea eta abarri esker. Bere metaforak kultura eta sinesmen oro gainditzen ditu: 200 herrialde baino gehiagotatik iritsi dira mezuak dagoeneko KEOran, 80 hizkuntzatan.

KEO?

GAUR EGUNGO MUNDUA BERREGIN ... GURE ONDORENGO URRUNEI ADITZERA EMANEZ

Komunikazioa: eko@keo.org

KEO: ohiz kanpoko tresna pedagogikoa

Munduan zehar hedatzen den heinean, gero eta irakasle gehiagok aurkitu du, KEOn, diziplina arteko proiektu pedagogiko berritzaileak garatzeko eskola-material apartekoa. Hain zuzen ere, KEO erabiliz, irakasleek eskola-maila guztietara egoki daitezkeen gai zientifiko, teknologiko, sozial, humanistiko eta filosofikoak ikasleekin lantzeko tresna dute.

Zenbait kultura, hizkuntza eta hezkuntza-mailatako irakasleek euren heziketa-lanetan bildutako esperientziari esker sortu da KEO Kit pedagogikoa. Tresna pedagogiko honek, beraz, erantzuna ematen die euren ikasleekin KEO abiapuntu harturik hezkuntza-jardueraren bati ekiteko erabakia hartu duten irakasleei, eta berdin balia daiteke KEOrri buruz ezer entzun ez dutenei proposatzeko ere.

Herrialde askotako ikastegietara zabaltzen delarik, gidaliburu honek abagune ederra eskaintzen die irakasleei, beren ikasle-gela osoen mezuak KEOrri igortzeko.

KEO: tresna pedagogiko paregabea

KEO ezohiko tresna pedagogikoa da, irakasle bakoitzari eskaintzen baitio, edozein jakintza-arlokoa edo irakaskuntza-mailakoa dela ere, diziplina arteko ikuspegi berritzaileak zabaltzeko aukera:

- ◆ ikasleei, planteamendu orokor desberdin batetik **gaur egungo mundua ulertzen** laguntzea,
- ◆ gizartearen inguruan, eta bereziki bakoitzarenaren inguruan, hausnarketak sorraraztea,
- ◆ gizarte-gaiei buruzko **analisi kritikoa egiteko gaitasuna** garatzea,
- ◆ ikasleen sentsibilitatea piztea eta euren **etorkizuneko herritart-zereginen** sartzan laguntzea, beren urruneko birbiloben asabak direla eta eurenaganako **erantzukizuna** dutela egiaztatuz,
- ◆ **proiektu honen miresgarritasuna eta gizarte-gaiak uztartzea:** bide amesgarrien eta eguneroko errealitatearen bitartez hausnarketak sortuz.
- ◆ zientzia, teknologia eta gizarte-eztabaiden ondoan, **arteak, edertasunak eta poesiak** ere lekua izan dezaketela irakastea.
- ◆ **norbanako bakoitza giza espeziearen ordezkari sentitzeko prestatzea, horrek dakartzan eta gizakiaren handitasuna ahalbidetzen duten erantzukizun guztiak onartuz.**

Zientzia, teknologia, artea, humanismoa eta ametsa batuz, KEO gizabanako bakoitzari zuzentzen zaio eta berehala eragiten du jakin-mina eta gogo bizia ikasle guztiengan, edozein adinekoak direla ere, eta bakar bat bera ere ez da axola ez diola geratzen.

Eskolaren berezko esparrua gaindituz, KEO sarritan bihurtzen da **familian ere hizpide**.

Zergatik dira irakasleak KEOren hedapenean garrantzizko zeregina betetzera deituak eta nola bete behar dute?

- beren ikasleei KEO proiektuaren berri emanez, hausnar egitera gonbidatzen dien lan kolektibo unibertsal eta historiko honetan parte hartzeko aukera izan dezaten.
- nahi badute, KEOren inguruko jarduera pedagogikoa burutuz
- ikasleei beren familietan KEOrri buruz hitz egiteko gonbidapena luzatuz

Zein da KEO gidaliburu Pedagogikoaren edukia?

KEO gidaliburu pedagogikoa da Kit honen osagarri nagusia. Irakasle askoren esperientzian oinarrituta pentsatu delarik, satelitea sortzearen ekimen tekniko ikaragarria eta barruan eramango dituen opari arkeologikoak esplikatzeko, horien artean, ikasleak sentsibilizatzeko irakasleei zabaltzen zaizkien bide pedagogikoak.

Nola lortu gidaliburua edo KEO Kit Pedagogikoa?

Gidaliburu pedagogikoaren bertsio elektronikoa eta bideo zinta dohainik eskuratzeko, **KEOren Interneteko webgunera jo:** www.keo.org.

KEOren inguruko jarduera pedagogikoren bat burutu duten irakasle batzuen adierazpenak

“ (...) Munduko irakasle guztientzat, KEO ikasleekin batera esperientzia mirezgarria bizi izateko aukera da! Ez dituzue berdin ikusiko! Eta eurek ere ez dizue lehen bezala begiratuko!”

Kimikako irakaslea- Montreal

“ (...) Zer ekarri dion KEOk nire eskolari? “ilusioa” esango dut. Akrostikoak edo geografia irakasten askoz ere errazagoa egin zitzaidan KEO edukita, izan ere, haurrak hedadura handiko proiektu batean parte hartzen ari zirela ohartu ziren, helduak bailiran, eta aldi berean egiazkoa eta magikoa zen zerbaitetan (nire mezua Ariane kohetean aireratuko da!) Eta eskola hain izan zen interesgarri, non joan den astean ikuskapen bat egin zuten eta ikuskariak, bazihoanean, esan zidan: “Agur, andrea, jarraitu zure ikasleei amets eginarazten (...)”.

Oinarrizko ikasturteetako andereñoa CE2 - Île de la Réunion

“Nire ikasleek eta nik KEO proiektua zein gogoz hartu dugun jakitera emateko zuzentzen natzaizue. Hain zuzen ere, datozen hiru hilabeteetarako gure proiektu teknologiko bihurtuko dugu. (...) Zuen KEO proiektuaren kontzeptuari miragarri deritzot eta harro nago nire inguruko pertsonen artean ahal dudan bezain hedapen zabala emateaz. (...)”

Ingeleseko andereñoa - Quebec - Kanada

“Egun on, “keonauta” gisa izena eman berri dudala esatera natorkizue, harro eta emozionaturik. Ikaroren amets honetan parte hartu ahal izatea ohore handia delakoan nago. Gaur arratsaldean bertan prozesatu dut nire mezua eta “Maita ezazue maitasuna” jarri diot izenburu. Filosofiako irakasle naiz Lanbide Heziketako ikastegi orokor batean eta “Gizakia” izenburupean 2002ko urtarrilean emango dudan ikastaroan zuen webgunea integratzeko asmoa dut. Gizakiari buruzko ikusmolde ezberdinak tratatzen dituzten autoreak aztertzeke nire ikasleek egin behar duten lanean KEOren erreferentzia erabili ahal izan dezaten nahi dut. Interneten ibiltzeko aukera eskaintzen duen ikasgela bat erabiltzen ari naiz. Pozten nau zuen webgunea aurkitu izanaz eta ikasleen harrera positiboa izango dela espero dut, baita esperientzia pedagogiko zoragarria izan dadila ere.

Filosofiako irakaslea - Kanada